



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2017/2018 denboraldia

25 ZK.DUN ZIRKULARRA

EUSKADIKO GAZTEEN LIGARAKO IGOERA-ALDIA

Datorren denboraldian Euskadiko Gazteen Ligara igoko den laugarren taldea zein izango den zehazteko, eta Batzorde Nagusian hitzarturiko txapelketa-oinarriei jarraiki, igoera-aldia antolatu da, honako arauak oinarri harturik:

1.- Parte-hartzaileak

Lurralde bakoitzeko maila goreneko Gazteen Ligan bigarren postuetan sailkaturiko taldeak:

C.D.F. Lakua Vitoria - Gasteiz	(Alava)
S.D. Leioa	(Bizkaia)
S.D. Eibar	(Gipuzkoa)

2.- Txapelketa-sistema

Izendaturiko formularen bidez egingo da (HIRU BATEAN). Partidek berrogeita bost minutuko iraupena izango dute. Maiatzaren 26an jokatuko dira Eibarko Unbe Inferior futbol zelaian. Partidak honako ordenan jokatuko dira:

S.D. Leioa – S.D. Eibar	16,30 etan
1. Galtzailea – C.D.F. Lakua Vitoria - Gasteiz	17,30 etan
1. Irabazlea – C.D.F. Lakua Vitoria - Gasteiz	18,30 etan

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 2 -

3.- Arbitraiea

Partidak zuzentzeko Lurralde Maila Goreneko lau arbitroek aukeratuko dira. Gastuak Euskadiko Federakundearen pentzudakoak izango dira

4.- Zigorrak

Txapelketaren ezaugarriak direla eta, Ohiko Ligaren zigorrek ez dute ondorerik izango bertan. Zigor horiek hurrengo denboraldian kontuan hartuko dira.

Aurrekoa jakinarazi zaie parte hartuko duten klubei, Lurralde Federakundeei eta Euskadiko Arbitroen Batzordeari, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak sor ditzan.

Bilbo, 2018ko maiatzaren 22a

KEPA ALLICA BILBAO
Secretario General



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

EUSKADIKO GAZTEEN LIGARAKO IGOERA-ALDIAREN ARAU OROKORRAK, "HIRU BATEAN" IZENeko SISTEMAREN ARABERA.

JOKALARI KOPURUA

Talde bakoitzak 18 jokalaria aurkeztu ahalko ditu, gehienez, txapelketa osoan joka dezaten.

JOKALARIEN ALDAKETAK

Partidetan, gehienez, hiru aldaketa egin ahalko dira. Ordezkoak, gehienez, zazpi izango dira.

KANPORATZEAK

Lehenengo partidaren kanporaturiko jokalaria oro ezin izango da bigarren partidako jokalaria-zerrendan sartu, eta beste batez ordeztu beharko da.

BERDINKETAK

Balizko berdinketak EFF-k indarrean duen Araudiaren III. Liburuko 101.4 artikuluan ezarritakoaren arabera ebatziko dira:

- a) Txapelketaren partida guztiak kontutan harturik, jasotako eta sartutako golen diferentzia handienaren arabera.
- b) Sartutako gol kopuru handienaren arabera, txapelketa osoan zehar lortutako gol kopurua kontutan harturik.
- c) Elkarren artean jolastutako partiden emaitzaren arabera.

Partida bakoitza bukatutakoan, emaitza zeinahi dela ere, bost jaurtiketa egingo dira penalti-gunetik, taldeetako batek irabazten duen arte. Emaitza hori kontuan hartuko da aldiaren sailkapen nagusian gerta daitezkeen berdinketak desegiteko azken aukera gisa.

Era berean, lehenengo partidaren berdinketarik gertatuz gero, jaurtiketa horien bidez erabakiko da zein den irabazlea, bigarren partida jokatze aldera.

BALOIAK

Beroketa egiteko, klub bakoitzak egoki irizten dituen beste baloi eramango ditu.

-O-O-O-O-O-O-O-O-